

Irura Zero Zabor taldeak hondakinen kudeaketarako ezarriko den atez atezko sistema berria dela eta, herritarren iritzia, zalantza, kezka eta eskaerak jasotzeko nahi dugu. Hori horrela, hona hemen irurarrak Irura Zero Zabor taldeari bidaltzeko mezua eta taldearen erantzuna.

El grupo Irura Zero Zabor quiere recoger las opiniones, preocupaciones, peticiones de los vecinos relacionados con el nuevo sistema puerta a puerta que se implantará para la gestión de los residuos. He aquí un mensaje que nos ha llegado al blog del grupo Irura Zero Zabor y la respuesta del grupo.

Iritzia / Opinión:

Irurako udalari:

Nosotras somos irurarras y queremos mucho a nuestro pueblo. Llevamos el nombre de Irura por todas partes donde vamos. Tenemos propiedades y pagamos nuestros impuestos, y por todo ello nos tomamos la libertad de enviar este correo. Ante la nueva modalidad que quieren imponer sobre la recogida de basuras de puerta a puerta queremos manifestar nuestro total desacuerdo y negativa por los puntos que les indicamos a continuación:

1º Porque ya existe un sistema en el que se ha gastado mucho dinero en ponerlo al día.

2º Porque no estamos en situación de gastar dinero habiendo tanta necesidad en otros apartados.

3º Porque prácticamente no se hace en ningún otro país de Europa. ¿Son tontos el resto de los Europeos?

4º Porque por mucho que nos empeñemos en reciclar siempre habrá un porcentaje de basura que habrá que incinerar.

5º He visto fotos de Hernani que es una vergüenza. Eso parece una Ciudad sin Ley. Me han dicho que hay hasta ratas. Esto me recuerda mi infancia. En Irura la basura se tiraba al río. Había unas ratas enormes.

6º También habrá que pensar en estética. ¡Vaya árbol más ecológico que quieren plantar delante de la puerta de casa con toda clase de olores!. ¿A Vds. no les gusta que el pueblo esté bonito?

7º Además de todo esto, hay residuos que no se sabe exactamente en que apartado hay que reciclar. Primeramente hay que educar a la gente y para eso hay que hacer unos folletos bien claros y bien entendibles para que se hagan bien las cosas.

8º El otro día vi el folleto todo en euskera. De sobra sabéis que hay gente que no habla Euskera. Difícilmente se podrán hacer bien las cosas si no se entiende. ¿Tanto cuesta poner en los dos idiomas? Hoy en día todos los niños van a la Ikastola y en las próximas generaciones todo será en Euskera y entenderemos todos y nos alegraremos mucho que así lo sea.

Un cordial saludo

Irura Zero Zabor taldearen erantzuna:

Eskerrik asko iritzia emateagatik eta pozten gara atez atekoari buruz herritarrek dituzten iritzia eta kezka jasotzeaz. Hala ere, garbi utzi nahi dugu mezua Irurako Udalari zuzentzen diozuen arren, Irura Zero Zabor taldeari bidali diozuela. Hortaz, erantzuna ere Irura Zero Zaborren izenean bidaltzen dizuegu eta ez Irurako Udalaren izenean.

Zuen iritziei dagokienez, zera argitu nahi dugu:

Egun dugun sistema erabat agortuta dago eta ez ditu Europako arauak betetzen. Hortaz, aldaketa derrigorrezkoa da.

Inbertsio ekonomikoari dagokionez, argitu behar dugu, aurrez esan bezala, sistema-aldaketa derrigorrezkoa dela. Egungo sistemarekin jarraituz gero, errauskailua beharrezkoa izango litzateke eta atez ateko sistema errauskailua eraikitzea baino merkeagoa da. Gainera, une honetan, errauskailua eraikitzeak zentzua galdu du erabat. Izan ere, Europar Batasunak birzikla daitezkeen hondakinak erraustea debekatzea erabaki du. Hortaz, errefusa bakarrik errausteko errauskailua eraikitzea ez litzateke beharrezkoa, ezta errentagarria ere.

Egia da, egun, atez atekoa ez dagoela oso zabaldua European, nahiz eta hainbat herrialdetan urte asko daramatzaten sistema honekin; Italian, adibidez. Ordea, hondakinen tratamenduan adituak diren hainbat pertsona ospetsuk adierazi dute atez ateko sistema dela eredurik onena eta emaitza onenak ere sistema horrekin lortzen direla. Horregatik, seguru gaude, atez atzeko sistema datozen urteetan Europa guztian zabalduko dela.

Jakin badakigu, egun ez dela posible %100 birziklatzea eta errefusa tratatu egin beharko dela. Foru Aldundiaren estrategia aurrerapauso handia da egungo egoerarekin alderatzen badugu. Izan ere, Gipuzkoan sortutako hondakin guztiak tratatzea proposatzen du eta egun ez da horrelakorik egiten. Horrela, Gipuzkoak Europako arauak beteko ditu. Estrategiak aurreikusten du egun Gipuzkoan dauden 3 zabortegi kutsatzaileak 2014an ixtea, konpostarako 6 planta eta Zubietan biometanizazio-planta bat eraikitzea. Azken horrek energia berriztagarria sortuko du. Azpiegitura-sare osoa eraikitzeko orain arte aurreikusitakoaren erdia inbertitzea aurreikusten da.

Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Antzuolako egoerak gertutik ezagutzen ditugu eta ez da zikinkeria-arazorik edo osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen egoerarik sortzen. Izan ere, atez atekoarekin hondakinak kalean bi orduz egoten dira gehienez eta horixe da atez atekoaren onuretako bat. Herri bakoitzak bere lehentasunen arabera ezartzen du bilketarako ordutegia eta herritarrek ordutegi hori baino 2-3 ordu lehenago atera dezakete bilketa-puntura egun horretan dagokien hondakina (esaterako, Usurbilen bilketa goizez egiten da eta Hernanin, berriz, gauez). Gainera, egun dugun sistemak ere hondakinak ateratzeko ordutegia du, nahiz eta askotan ahaztu egiten zaigun. Ordea, ordutegi hori ez da betetzen edukiontzia beti eskura daudelako eta horrek kiratsa sortzen du edota altzariak... pilatzen dira edukiontzien inguruan.

Estetikari dagokionez, argitu dugun bezala, esan, hondakinen poltsak edo kuboak ez direla egun osoan zintzilikarioan zintzilika egoten. Gainera, bilketa-puntua ez du zertan etxe-atarian jarri beharrik. Hernaniko alde zaharrean, adibidez, plazatxo eta kaletxoetan giltzatutako bilketa-puntuak jarri dira eta bertan zintzilikario asko daude eta ezkutuan geratzen dira. Udalak herritarrekin adostu beharko du bilketarako zintzilikarioak non jarri.

Hizkuntzari dagokionez, ahalegina egiten ari gara herritar guztiengana iristeko: bilera batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz egin, idatzi guztiak ele bietan atera, etab. Etxeetan banatu genuen idatzia ere herritarren hizkuntzaren arabera banatu genuen; euskaldunei euskaraz banatu genien eta euskaraz ez dakitenei edo ezagutzen ez ditugun herritarrei ele bietan. Hala ere, iritzia ematea eskertzen dugu eta saiatuko gara aurrerantzean ere hizkuntzari arreta berezia jartzen.

Besterik gabe, Europako arauak eskatzen dituzten bidean bidelagun izatera gonbidatu nahi zaituztegu, arau horiek guretzat eta gure ondorengoentzat ere onuragarriak izango direlako. Horregatik, sortzen dugun hondakin-kopuruaz jabetu eta eguneroko hondakinak birziklatzen hasteko edo jarraitzeko gonbitea luzatzen dizuegu.

Eskerrik asko.

Irura Zero Zabor

Respuesta del grupo Irura Zero Zabor:

Gracias por mostrarnos vuestra opinión, nos alegra recibir las opiniones y preocupaciones de los iruratarras sobre este tema. Aunque vuestro mensaje iba dirigido al Ayuntamiento, de momento os contesta la plataforma popular Irura Zero Zabor, que es la que gestiona el email al que enviasteis vuestro texto (quizá fruto de una confusión). Es decir, esta contestación es la respuesta del grupo Irura Zero Zabor, no la del Ayuntamiento.

En cuanto a vuestras opiniones queremos aclarar lo siguiente:

El sistema que actualmente tenemos está totalmente agotado y no cumple las directrices europeas por lo que es obligatorio el cambio.

En cuanto a la inversión económica, debemos aclarar que como acabamos de mencionar el cambio de sistema es obligatorio y el sistema puerta a puerta es más barato que la construcción de una incineradora que sería obligatoria si continuáramos con el sistema actual. Además la construcción de la incineradora en este momento ha perdido todo sentido puesto que la Unión Europea ha decidido prohibir la incineración de residuos reciclables y por lo tanto, para incinerar solamente la fracción de resto, no sería ni necesaria ni rentable.

Es cierto que no es un sistema muy extendido por Europa hoy en día, aunque hay regiones por ejemplo en Italia en las que lleva muchos años implantados, pero, diversas personalidades expertas en el tratamiento de residuos acaban de señalar el sistema de recogida puerta a puerta como mejor ejemplo y el que mejores resultados da, por lo que estamos seguros que se extenderá por toda Europa en los próximos años.

Somos conscientes que hoy en día no es posible reciclar el 100% de los residuos, y que habrá que tratar el resto. La estrategia de la Diputación supone un gran paso adelante en comparación con la situación actual, ya que plantea el tratamiento de todos los residuos generados en el territorio, cosa que actualmente no ocurre. De esta manera, Gipuzkoa cumplirá la normativa europea. La estrategia prevé el cierre en 2014 de los tres vertederos contaminantes existentes actualmente en Guipuzcoa y la creación de seis plantas de compostaje y de una planta de biometanización en Zubieta: dicha planta generará energía renovable. Para la construcción de toda la red de infraestructuras se prevé invertir la mitad de lo previsto hasta ahora.

Conocemos la situación de Usurbil, Hernani, Oiartzun y Antzuola de cerca, y no se generan situaciones de suciedad ni insalubridad puesto que una de las ventajas del sistema de recogida puerta a puerta es que los residuos sólo permanecen en la calle como máximo dos horas, ya que el horario de recogida se establece según las preferencias de cada pueblo y la población suele tener un margen de 2-3 horas antes para sacar los residuos correspondientes cada día al punto de recogida. (por ejemplo en Usurbil la recogida se realiza por las mañanas y en Hernani de noche). Queremos añadir, que el sistema del que disponemos hoy en día, aunque muchas veces se nos olvide, también marca un horario para sacar los residuos pero en la mayoría de los casos no se respeta por el simple hecho de tener los contenedores todo el tiempo disponibles y eso, produce hoy en día olores o que muebles... se acumulen alrededor de los contenedores.

En cuanto a la estética, como ya hemos aclarado, no suelen estar las bolsas o cubos todo el día colgados en el sistema. Además, no tiene porque ser en las puertas de las casas. Por ejemplo, en la Parte Vieja de Hernani se han utilizado plazoletas y callejones a los que se accede con llave para colocar gran cantidad de colgadores, que quedan ocultos. La localización de los colgadores se tendrá que decidir en función de las preferencias de la población.

En cuanto al idioma, estamos haciendo un esfuerzo para tratar de llegar a todos, por ejemplo convocando reuniones distintas en euskera o castellano, publicando todos los documentos en bilingüe, etc. El escrito que habeis recibido en casa también tiene su versión en español, pero a la hora del reparto se decidió repartir en los buzones de las familias euskaldunes la versión en euskera. Aún así agradecemos mucho vuestra opinión.

No queremos desaprovechar la ocasión para invitaros a que nos acompañéis en el camino que las directivas europeas nos han exigido y que serán beneficiosas para todos nosotros y las siguientes generaciones intentando tomar conciencia de la cantidad de residuos que generamos y que iniciéis, si no lo habéis hecho aún, el reciclaje de los residuos cotidianos.

Gracias por vuestra opinión.

Irura Zero Zabor